# 19. Korrika




LIDE FERREIRA

## BIDEBIETATIK AÑORGARA

Irudi ederrak utzi ditu Korrikak Donostian, Bilboko helmugara bidean; lau ordu eta erdiz ibili da euskararen aldeko tropela hiriko kaleetan barrena, eta eromena piztu du // I-VIII




C/ Nueva 15 - GROS
Tel.: 943 32 66 49
DONOSTIA

multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan




**Korrikak Bidebietan egin zituen lehen metroak, Donostiari dagokionez.** ARITZ SORZABAL

*Eromena piztu da Donostian, Korrikaren etorrerarekin. Kaleak lepo bete dira euskararen aldeko jarduerari ongi etorria emateko. Hirian izandako irudiak errepikatuko dira etzi Bilbon, igandean iritsiko baita tropela helmugara.*

# Jaia oraindik ez da amaitu

**–ARITZ SORZABAL**

Korrikaren 19. ekitaldia ziztu bizian igaro zen igandean Donostiatik. Lau ordu eta erdiz ibili zen hiriko kaleetan zehar, baina, azkar, oso azkar pasa zen; gozamena ekartzen duten gauza guztiekin gertatzen den bezala.

Jaia, baina, ez da oraindik amaitu. Euskararen aldeko tropela igandean iritsiko da Bilboko helmugara, eta han Donostian bizitako irudiak errepikatuko dira.

Hainbat argazki bildu ditu IRUTXULOKO HITZAk ondorengo orrialdeetan, joan den igandeko eromena agerian gera dadin. Ea bilbotarrek berdintzen edo gailentzen duten.

**Trintxerpetik**

Hain zuzen ere, Bidebietako atetik sartu zen Korrika igande goizean, 8:33ak puntu-puntuan, Trintxerpetik zetorrela, eta Pasai Donibane eta Pasai San Pedroko tartea txalupaz pasa eta gero.

Atera, berriz, atzerapenarekin atera zen Añorgatik. Izan ere, hiriko kaleak ordutegiaren barruan zeharkatzeko komeriak izan zituen tropelak. Grosen eta Parte Zaharrean, bereziki, buxadurak sortu ziren.

Horrenbestez, lau orduz beharrean, lau ordu eta erdiz ibili zen Korrika Donostian. Egun osoan geratu izan balitz, herritarrek ziur ez zuketela aurpegi txarra jarriko.

**Tropelak bere ibilera mantsotu du Grosen eta Parte Zaharrean, jendetza dela eta**

**Joaldunek, erraldoiek eta Kantu Jirak girotu dute hiria, bezperan**

Festarako gogoa zegoen, eta aurreko egunetan ere nabaritu zen. Korrika Kulturalaren barruan hainbat jarduera antolatu zituzten hirian, horietako batzuk larunbatean bertan, Korrikaren bezperan.

Parte Zaharra, esaterako, joaldunek, erraldoiek eta buruhandiek eta Kantu Jirak girotu zuten. Igandean, auzoz auzo, gosariak eta hamaiketakoak egin zituzten, tropelaren zain zeuden bitartean.

*asorzabal@hitza.eus*

ZUMARDI
taberna
KORRIKAREKIN BAT!
ZUMARDI PASEALEKUA 22, HERRERA

JAKOBE
PSIKOTERAPIA
620.12.24.29
• Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra
• Banakako, bikote eta familia terapia
Jakobe Batanero Alvarez - Psikologoa GZ 1579
Xenpelar plaza, solairuartea, 5.ofizina, Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

PAPELERIA DELTA PAPERDENDA



Andrestegi, 2 behea ANTIGUA
943 22 38 98 - deltapapeleriass@gmail.com

MARCOS
okindegia
Benetako antzinako ogia
Ubarburu pasealekua, 113 • 27. Industrialdea • ASTIGARRAGA
Tel.: 943-45 09 66 • Faxa: 943-11 67 28



**Tropela, Intxaurrondon.** LIDE FERREIRA



**Egiako aldapetan gora eta behera ibili ziren.** NEREA LIZARRALDE

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK
**Irun** . Bidaurre Ureder industria gunea 2, 4 pab . **Bera** . Zalain industria gunea 42A
Tel.: 943 63 45 36 / Faxa.: 943 63 45 37 / www.goieko.com / goieko@goieko.com

Donostian euskara ikasi
Ongi etorri, Korrika!
Urrats
euskaltegia
www.urrats.com **943-46 55 93** Karlos I., 10 / Amezketa, 12

LIZEAGA
Sagardotegia | Astigarraga | ✆ 943 468 290
Lizeaga Sagardoa, hori gozamena!
edan eta eman edatera
EUSKO LABEL

# 19. Korrika
## Euskahaldun!


**Gosariak egin zituzten auzoetan, Korrikaren zain zeudenentzat.** NEREA LIZARRALDE


**Bulebarrean, erritmoari eutsi nahian.** LIDE FERREIRA



**Martuteneko espetxearen parean jendetza bildu zen; *Gu ta gutarrak* telebista saioko kideak, tartean.** ARITZ SORZABAL


**Korrika, Martutenen.** ARITZ SORZABAL

Lete
itzulpenak
www.lete.net
administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa
Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net

LAISTER
1980-2015

Elkano kalea, 6 (Merkataritza Gunea) - Tel.: 943 43 07 04


**Pasai Donibanen tropelarekin bat egin ondoren, Oarsoaldeko talde hau Amarara joan zen Donostian ere**








**korrika egiteko.** NEREA LIZARRALDE



**Bretxa parean, lekukoa hartzen.** LIDE FERREIRA





















**Sarriegi plazako danborraria, IRUTXULOKO HITZArekin.** AINHOA IRIBAR



**Tropela, Kaian.** LIDE FERREIRA







Pelegrin de Uranzu, 9 (Urdanibia plazaren ondoan)
20304 Irun . 943 615 184 - 687 572 920
bainu.irun@gmail.com . www.bainu.eu
Zarautz hiribidea, 86 . 20018 Donostia . 943 561 652



**Gandarias eta Juantxo tabernetako lekukoak, Parte Zaharrean barrena.** LIDE FERREIRA



**Añorgako gazte talde bat, presoen sakabanaketaren aurkako ikurrekin.** ARITZ SORZABAL


Kantu Jirak Korrikari abestu zion bezperan. ARITZ SORZABAL



Erraldoiek ere bat egin zuten Korrikarekin. ARITZ SORZABAL


Joaldunak, larunbatean, euskararen aldeko tropelaren etorrera iragartzen. ARITZ SORZABAL



Añorgan egin zituzten Korrikaren azken metroak Donostian. ARITZ SORZABAL









# Tropelean ere irakur daitekeela erakutsi dute

IRUTXULOKO HITZAk Easo kalean hartu du euskararen aldeko lekukoa, Donostia 2016 egoitzaren aurrean, Gure Esku Dago dinamikako lagunen kilometroaren ostean


Estitxu Zabala eta Eneritz Arrillaga, lekukoarekin. NEREA LIZARRALDE

**–ARITZ SORZABAL**

Urte berezia da IRUTXULOKO HITZArentzat, bere 10. urtemuga ospatzen ari baita. Testuinguru horretan hartu zuen lekukoa igandean Easo kalean, Donostia 2016 egoitzaren aurrean, Gure Esku Dago dinamikaren kilometroaren ostean. Estitxu Zabala kazetariak eta Eneritz Arrillaga kudeatzaileak korrika egin zuten hedabidearen izenean, proiektuaren hainbat sustatzailerekin batera.

Hain zuzen ere, IRUTXULOKO HITZA astekariko zenbait alerekin egin zuten korrika guztiek. Korrika egiten ere irakur daitekeela erakutsi zuten horrela; euskaraz bai, behintzat. Irudi ederra izan zen, Erdialdean gainera, tropela luze-luze egindazetorrenean, eta bide bazterrak jendez gainezka zirela.

Zabalak duela lau urte ere hartu zuen lekukoa; IRUTXULOKO HITZAko zuzendariarekin, kasu horretan. Igandekoa oso une hunkigarria izan zela nabarmendu du: «Azken momentuan egokitu zait niri lekukoa hartzea. Nik duela lau urte hartu nuen. Beraz, beste langile bati egokitzen zitzaion aurten, baina lan taldea lanean dago Korrikari buruzko informazioa behar bezala jasotzeko; hortaz, berriro irten naiz lekukoarekin. Hori bai, gaur ere oso pozik egin dut korrika».

*asorzabal@hitza.eus*




Astekariarekin. NEREA LIZARRALDE













